

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2160

*318/2022 EBAZPENA, martxoaren 24koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Adrián Manuel Esnarriaga Vicente jauna Erradiologia eta Erradiologia Interbentzionistako Gainbegirale izendatu den, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.*

4/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan Erradiologia eta Erradiologia Interbentzionistako Gainbegirale lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Adrian Manuel Esnarriaga Vicente jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da: hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko Erradiologia eta Erradiologia Interbentzionistako Gainbegirale.

Beraz, bat eginda Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiruugarren arau komunarekin, Osakidetzaaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Adrian Manuel Esnarriaga Vicente jauna izendatzea Erradiologia eta Erradiologia Interbentzionistako Gainbegirale Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESlan.

Bigarrena.— Izendapen honek 2022ko martxoaren 15etik aurrera ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko da, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.— Interesdunari eta Donostialdeko ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko martxoaren 24a.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
ESTHER LITAGO SOLA.